

berriak Triforio -tik



araba
álava

Uda honetan Katedralean izandako bisitei buruzko datuetan, osasun-egoeraren hobekuntza eta pandemiaren gero eta eragin txikiagoa nabaritu dira. Uztailean eta abuztuan 21.500 bisitari baino gehiago izan ditu, eta 2022ko zifrak bisita gidatuen programan lortutako maximo historikotik oso gertu egon dira.



Lehengoak bezalako uda

Aste Santuan izandako goranzko joeraren ondoren aurreikusi zen bezala, 2022ko udak oso balantze positiboa utzi du Santa Maria Katedrala Fundazioaren bisita gidatuen programan. Uztailean eta abuztuan bildutako datuen arabera, 21.579 pertsona igaro dira Gasteizko tenplutik.

Estatistikari dagokionez, kopuru hori programak udako hilabeteetan izan duen maximo historikotik oso gertu dago, eta pandemiaren osteko agertoki normalizatuan dago jada. Nabarmentzekoa da 2019an 20.898 bisita erregistratu zirela uztailean eta abuztuan, eta 2021ean, berriaz, 22.088.

Hilabetea, ohi bezala, abuztua izan da bisitari gehien izan dituen, 12.233 bisitarekin, eta uztailean 9.346 izan ziren. Estatu mailan, bisitarien jatorri nagusia Madril, Katalunia, Andaluzia eta Valentziako Erkidegoa izan ziren berriro ere, eta ondoren Euskadiko gainerako probintziak.

Nazioarteko turismoari dagokionez, Italiatik etorritako pertsonen kopurua nabarmen hazi da, abuztuan merkatu igorle nagusia

izan baita. Italiaren ostean, Frantziatik eta Alemaniatik etorritako bisitariak, ohi bezala, ugariena izan dira.





Iraila kulturala

Oso arlo desberdinetakoak izan arren kultur oinarri konpartitua duten lau proposamenek, Katedralaren dinamizazio sozialaren gaitasun handia nabarmendu dute irailean zehar. 30 egun pasatxotan, zinemarako, magiarako, musikarako eta zientzia-dibulgaziorako lekua egon da.

Irailaren 3an, **“Zinema Elizpean 2022”** zikloari amaiera emateko, Santa Maria Plazan “Dios mío, los niños han vuelto” filmaren proiektzioa izan zen, edukiera bete zuten ikusle-entzuleen harrera ezin hobearrekin.

Bestalde, irailaren 9an, Santa Mariako Elizpeak Tobillasko San Roman elizaren 1.200 urteei eskainitako **“Araba: lurralde aitzindaria eta berritzailea kultur ondarean”** jardunaldien inaugurazio-saioa hartu zuen.

Egun bat geroago, irailaren 10ean, Tomás Merlok eman zion amaiera **“Kontzertuan eta irekita”** programari. Programak ikus-entzule ugari izan ditu, eta aipamen berezia egin behar zaio Pablo Milanésen emanaldiari.



Argazkia: @LBH_AngelZN



Azkenik, **Magialdia** Gastetizko Magia nazioarteko jaialdiaren barruan, Katedralak “Iku-sezinaren barruan” obraren antzezpena hartu zuen 12, 13 eta 14an. Lan hori iluntasunik erabatekoenean egin zen, magia ikusmen-arazoak zituzten pertsoneri hurbiltzeko.



Aitzina Folk-en aurkezpena

Urriaren 15ean, larunbata, 19:00etatik aurrera, Katedralak Aitzina Folk jaialdiaren hamargarren edizioaren aurkezpeneko kontzertua hartuko du. Ekitaldi horretan, aurtengo egitarauaren berri emango da, eta gaita, alboka edo xiberotar txirula bezalako musika-tresnen bidez musika tradizionalaren eta antzinako musikaren arteko harremana jorratuko duen “Karlos Subijana & Amigos” taldearen emanaldi berezia izango da. Sarrera libreza izango da leku guztiak bete arte.

Farolen kontzertuak

Farolen Prozesioaren sorreraren 125. urteurrena dela eta, urriaren 21ean eta 28an eta azaroaren 4an, ostiralak, katedralean hiru abesbatz-kontzertu egingo dira, Andre Maria Zuriaren Kofradiak antolatuta. Emanaldiak Araba Abesbatza, Ahots Argiak Abesbatza, Gurasoak-San Viator Abesbatza, Laudata Abesbatza, Nurat Abesbatza eta Samaniego Abesbatza talde arabarrek emango dituzte, eta Luis Arambururen eta hainbat euskal konpositoreren obren interpretazioak eskainiko dituzte. Emanaldiak 19:45ean hasiko dira eta sarrera doakoa izango da, urriaren 6tik aurrera Farolen Museoa gonbidapena jaso ondoren.